

FUNTSEZKO BALIABIDEAK

Funtsezko baliabideen artean lau motatako baliabideak ditugu: *Baliabide fisikoak baliabide intelektualak, giza baliabideak eta finantzia baliabideak.*

• Baliabide fisikoak

Baliabide fisikoen artean zenbait aurkitu ditzakegu, horien artean, gure aplikazioa garatzeko ordenagailuak eta hauek modu egokian funtziona dezaten beharrezko aparatu teknologikoak. Gainera lan egiteko toki bat dugu, xede modukoa, Bilbon dagoena, bertan lan egiteko beharrezkoak diren altzariak daude (mahiak, aulkiak, armairuak). Bukatzeko eta derrigorrezko pieza bezala gure aplikazioaren “ BETA, ALPHA” faseak probatzeko 3 mugikor, punta puntako teknologia dutena.

• Baliabide intelektualak

Baliabide intelektualei dagokionez, gure enpresan 2 informatiko ditugu, informatika arloan adituak direnak, gainera batek programazio lanak egiteko gai da (WEB gunearen diseinua eta aplikazioaren funtzionamendua antolatzen duena, aplikazio modu egokian eta ordenez funtzionatzeko). Beste alde batetik, taldeko ideiak ditugu, hau gure baliabide intelektualen artean eraginkorra da. Ideiak ezin direlako erosi edo kontratatu. Marketin eta publizitate arloan ere prestakuntza handiko adituak ditugu, izugarritzko marketin estrategiak aplikatzen dituztenak (ideiak). Gainera ideiekin erlazionatuta, inbertsio arloan aditua den pertsona bat dugu, ideiak eta berak jakiniko kontzeptuak erabiliz inbertsioak egiten dituena.

- Informatikari buruzko jakintza

-Ideiak

-Marketin eta publizitate estrategiak

-Inbertsio buruzko jakintzak

• Giza baliabideak

Gure enpresak giza baliabideetan dauka oinarria, horregatik, berebiziko garrantzia dute. Alde batetik, bi informatiko ditugu egunean aplikazioaren funtzionamendua monitorizatzen dutenak, gainera etengabe eguneratzeak prestatzen darabiltzatenak. Beste aldetik, informatiko batek, diseinatzaile lanak egiten ditu, gure WEB gunea eta aplikazioa diseinatuz (programadore lanak). Gune sozialean, ere pisu handiko baliabideak ditugu, adibidez, erlazio publikotarako agente bat, honek gure enpresa beste enpresa batzuekin kontaktuan jarri egiten du eta gure enpresa munduan zehar zabaltzea du funtzio nagusi bezala. Enpresan, psikologo batek ere lan egiten du, eta honek gure langileen egoera pertsonala hobetzen saiatu egiten da gero egoera profesionalean ondo lan egin dezaten, eta bestetik lan giroan arazoak ekiditzen saiatzen da. Eta bukatzeko, arlo finantzarioan ekonomista batekin lan egiten dugu eta marketin eta publizitateko lizentziatu batekin. Gainera, enpresaren barnean, ideiak garatzen eta erabakiak hartzen gu laurok aritzen gara.

- Informatikoa

-Diseinatzaile grafikoa

-Erlazio publikoetarako agentea

-Psikologoak

• **Finantza-baliabideak**

Gure enpresako finantza baliabideak ez dira oso ugariak, hasi berri den enpresa baikara. Hala ere, aipatzekoa da publizitatearen bidez jasotzen ditugun inbertsioak edo guk bazkide bezala egiten ditugun ekarpenak. Azkenik, noizbehinka, inbertsoren bat edo batzuk gure aplikazioan inbertitzea erabakitzen dute.

-Publizitatearen bidez jasotako inbertsioak

-Bazkideek egindako ekarpena

-Kanpoko inbertsoreak egindako inbertsioak